



2024KO EKITALDIKO AURREKONTU-PROIEKTUARI BURUZKO TXOSTENA

DESKRIBAPENA

Txosten honen xedea da EUDELen 2024ko ekitaldiko aurrekontua aztertzea. Horretarako, esan behar da aurrekontu hau egiteko kontuan hartu dela Autonomia Erkidegoko Toki Erakundeei aplikatu beharreko aurrekontu-egitura.

Txosten honetan, lehenik eta behin, diru-sarreraren eta gastuen analisi ekonomikoa egiten da kapituluka, eta, ondoren, gastuen azterketa programaka garatzen da.

EUDELen 2024ko ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen aurrekontu parekatua 3.721.235,54 eurokoa da; hau da, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren hasierako aurreikuspenak baino ehuneko 9,20 handiagoa.

Gastuen sailkapen ekonomikoa, lotura juridikoa kapitulu mailakoa da; eta gastuen programen arabera sailkapenean, berriz, gastu arloaren mailakoa.

Txosten horri sarrera eta gastuen aurrekontuaren egoerak erantsi zaizkio. Konparaziorako, 2023ko ekitaldirako onetsitako aurrekontuaren hasierako aurreikuspenei buruzko datuak sartu dira.

DIRU-SARREREN AURREKONTUAREN ANALISIA

2024ko ekitaldirako diru-sarreraren aurrekontu parekatua 3.721.235,54 eurokoa da. Aurreko ekitaldiko aurrekontuaren hasierako aurreikuspenekin alderatuta, aurrekontua ehuneko 9,20 handitu da.

Hona hemen 2024ko ekitaldiko diru-sarreraren aurrekontua kapituluka banakatuta eta 2023ko aurrekontuarekin alderatuta:

* Zenbatekoak, eurotan adierazita

		HASIERAKO AURREIKUS. 2023	HASIERAKO AURREIKUS. 2024	% Aldak.	% 2024ko aurrekontuare kiko
3. KAPITULUA	Tasak eta beste diru-sarrera batzuk	22.500,00	27.500,00	% 22,22	% 0,74
4. KAPITULUA	Transferentzia arruntak	3.321.396,08	3.614.625,54	% 8,83	% 97,14
	Zerga itunduen partaidetza	2.810.984,07	2.997.710,99	% 6,64	% 80,56
	Bazkideen kuotak	291.792,01	293.294,55	% 0,51	% 7,88
	Gobernantza proiektuaren ekarpenak	50.820,00	50.820,00	% 0,00	% 1,37
	Diru-laguntzagatiko sarrerak	167.800,00	272.800,00	% 62,57	% 7,33
5. KAPITULUA	Ondare-sarrerak	63.897,63	79.110,00	% 23,81	% 2,13
DIRU-SARRERAK GUZTIRA		3.407.793,71	3.721.235,54	% 9,20	% 100,00

2024ko ekitaldiko diru-sarreraren aurrekontuaren alderdirik azpimarragarrienak honako hauek dira:

3. kapituluua. Tasak eta beste diru-sarrera batzuk.

Kapitulu honetan aurreikusten dira, nagusiki, EUDELe IVAP-HAEEekin batera antolatzen duen Toki Zuzenbideari buruzko Euskal Mintegiaren programan izena emateagatiko diru-sarrerak, 25.000,00 eurokoak.

Halaber, kapitulu honetan 2.500,00 euroko beste diru-sarrera batzuk ere aurreikusten dira.

4. kapitulua. Transferentzia arruntak.

Diru-sarreraren kapitulurik garrantzitsuena da, diru-sarreraren guztizkoaren ehuneko 97,14 hartzen baitu. Transferentzia arrunten aurreikuspena ehuneko 8,83 handitu da 2023ko ekitaldiko hasierako aurreikuspenekin alderatuta; beraz, 2024ko ekitaldirako 3.614.625,54 euroko diru-sarrerak aurreikusten dira kontzeptu horrengatik.

Udal Finantzaketarako Foru Funtzen ehuneko 0,15etik datozen diru-sarrei dagokienez, lurralde bakoitzeko Finantzen Lurralde Kontseiluetan zehaztutako 2024ko ekitaldiko hasierako aurreikuspenak kontuan hartuta kalkulatu da.

Taula honetan daude zehaztuta zerga itunduetan izandako parte-hartzeari buruzko datuak, lurraldeka banakatuta:

* Zenbatekoak, eurotan adierazita

			HASIERAKO AURREIKUSPENAK 2023	HASIERAKO AURREIKUSPENAK K 2024	Aldaketa % - 2024 / 2023
416		Foru Aldundiak eta beste Foru Erakunde batzuk	2.810.984,07	2.997.710,99	% 6,64
	41601	Arabakoa. Zerga Itunduen Partaidetza	395.457,91	396.136,99	% 0,17
	41602	Bizkaikoa. Zerga Itunduen Partaidetza	1.501.441,77	1.623.991,00	% 8,16
	41603	Gipuzkoakoa. Zerga Itundien Partaidetza	914.084,39	977.583,00	% 6,95

2024rako ez da aurreikusten igoerarik udal-bazkideen kuotetan.

Udalen finantzaketarako foru-funtsetan parte hartzea da EUDEL-en aurrekontuaren baliabiderik garrantzitsuena, diru-sarrera guztien ehuneko 80,56 baitira. Bestalde, bazkideen kuotak diru-sarrera guztien ehuneko 7,88 dira.

Bestalde, kapitulu honetan aurreikusten dira gobernanzako bikaintasun-proiektuarekin (ELoGE) jarraitzeko diru-sarrerak, eta parte hartzen duten udalen ekarpenetan gauzatzen dira, 50.820,00 euroko zenbatekoan.

Transferentzia arrunten kapituluan, halaber, Eusko Jaurlaritzako hainbat sailek eta Emakundek hitzarmenak eta dirulaguntza izendunak formalizatzeagatiko diru-sarrerak aurreikusten dira; aurrekontu osoaren ehuneko 7,33 osatzen dute:

- Emakunderen aldetik, Berdinsarea sarerako eta Berdinbidean programarako 84.800,00 euro aurreikusten dira, eta Eusko Jaurlaritzako (Idazkaritza Agenda 20/30) berdintasunaren alorreko 20/30 agendarako 25.000,00 euro.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailarena, udaletan euskararen erabilera sustatzeko planak diseinatu eta garatzeko, 28.000,00 euro zenbatekoarekin.
- Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailarena; etorkinentzako itzulpen-zerbitzurako 80.000,00 euro aurreikusten dira.
- Eusko Jaurlaritzarena, ETELen helburuak bultzatzeko: 55.000,00 euro.

5. kapitulua. Ondare-sarrerak.

Ondare-sarreren aurreikuspena 79.110,00 eurokoa da, eta bat dator, alde batetik, Bilboko Colón de Larreategi kaleko 35. zenbakian dagoen EUDELen jabetzako higiezinaren alokairu-kontratuarekin 68.310,00 euroko zenbatekoarekin, eta beste alde batetik, banku-kontu korrontean gordailututako eskudiruari dagozkion 10.800,00 euroko interesak kobratzearekin.

GASTUEN AURREKONTUAREN ANALISIA

2024ko ekitaldiko gastuen aurrekontua 3.721.235,54 eurokoa da, hau da, aurreko ekitaldiko aurrekontua baino ehuneko 9,20 handiagoa.

Hona hemen 2024ko gastu-aurrekontuaren sailkapen ekonomikoa eta 2023ko ekitaldiko aurrekontuaren hasierako aurreikuspenekiko alderaketa:

* Zenbatekoak, eurotan adierazita

		HASTAPENeko AURREKONTU KREDITUAK 2023	HASTAPENeko AURREKONTU KREDITUAK 2024	% Aldak.	% 2024ko aurrekontuare kiko
1. KAPITULUA	Pertsonal gastuak	1.609.106,04	1.647.541,33	% 2,39	% 44,27
2. KAPITULUA	Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketa	1.468.283,17	1.744.039,50	% 18,78	% 46,87
3. KAPITULUA	Finantza gastuak	44.340,00	24.417,83	-% 44,93	% 0,66
4. KAPITULUA	Transferentzia arruntak	22.636,50	22.636,65	% 0,00	% 0,61
6. KAPITULUA	Inbertsio errealak	32.000,00	31.000,00	-% 3,13	% 0,83
9. KAPITULUA	Finantza pasiboak	231.428,00	251.600,23	% 8,72	% 6,76
GASTUAK GUZTIRA		3.407.793,71	3.721.235,54	% 9,20	% 100,00

1. kapitulua. Pertsonal gastuak.

1. kapitulan, 2024ko ekitaldirako aurreikusitako zenbatekoa 1.647.541,33 eurokoa da, hau da, gastu osoaren ehuneko 44,27.

Ordainsarien ehuneko 2,5eko igoera aurreikusten da, kontuan hartu baita Estatuko Negoziazio Mahai Orokorrean Estatuko aurrekontu orokorretan ehuneko 2ko igoera sartzearen erabakia 2024 urterako. Igoera horri puntu erdia gehituko litzaioke, KPlari lotutako aldagaien arabera.

Hala ere, 1. kapitulua ehuneko 2,39 handituko da, alde batetik, 2023ko abenduan erretiroa hartuko duten bi pertsonen antzintasunaren kontzeptuan aurrezteagatik, eta, bestetik, Elkarkidetzarako ekarpenen murrizketagatik, 2023ko maiatzean erakundeko bost pertsonari aitortutako atzerapenen ordainketa amaitu zelako.

2. kapitulua. Gastu arruntak eta zerbitzuetakoak.

2. kapitulua gastu guztien ehuneko 46,87 da, eta ehuneko 18,78 igo da aurreko ekitaldiko hasierako aurreikuspenekin alderatuta.

Kapitulu honetan honako hau azpimarra dezakegu:

- *Azterlan eta lan teknikoen* partida 808.255,11 eurokoa izango da 2024 urterako; eta, besteak beste, honako hauetarako erabiliko da: udalaren gizarte-diagnostikoaren pilotaje-proiekturako, urteko kontuen auditoretzarako, 20/30 agendaren esparruan egin beharreko lanetarako, udaltzaingoan berdintasuna ezartzeko gida zabaltzea, udaltzaingoan berdintasun-planak ezartzeko gaikuntza ematea, edo elkarte batean den edozein beharrianetarako.
- *Politikariak eta zuzendariei* zuzendutako prestakuntzan aurreikusitako 58.000,00 euroko zenbatekoa, 2023ko ekitaldian hasi diren alkate eta zinegotzi berriei zuzendutako harrera-programei jarraipena emateko.
- *Proiektu eta programetarako* aurreikusitako zenbatekoak 390.666,00 eurokoak izango dira, eta xehetasun handiagoz azalduko dira txostenaren hurrengo atalean.
- *Prentsa- eta komunikazio-zerbitzuen* partidak 63.486,00 euroko zenbatekoa du, eta, besteak beste, honako hauek hartzen ditu barne: jardunaldi eta ekitaldietarako bideoak grabatzea, prentsa-kabinetari laguntzea edo Eudelen erakunde-nortasunaren eskuliburua egitea.

3. kapitulua. Gastu finantzarioak.

Kapitulu hau 24.417,83 euroz hornitu da, eta 2008an Colon de Larreategi kalean dagoen higiezin erosteko egindako hipoteka-maileguaren interesengatik gastuei dagokie. Kapitulu horrek ehuneko 44,93 egin du behera 2023ko hasierako aurreikuspenekin alderatuta, 2023an ezohiko amortizazioa burutu delako, zorra 500.000,00 eurotan murriztuz.

4. kapitulua. Transferentzia arruntak.

Transferentzia arrunten kapitulua 22.636,65 eurokoa da.

Euskaltzaindiarekin sinatutako toponimia-hitzarmenari dagokion gastua 15.000,00 euroekin doitu egin da; 7.067,00 euro doitu dira EUDEL-FEMPen arteko lankidetzahitzarmenaren kontzeptuan, eta Euskaliten kolaboratzaile-kuota, 267,00 eurokoa, eta Innobasqueren kuota ere, 302,50 euro, aurreikusi dira.

6. kapitulua. Inbertsio errealak.

Kapitulu honetan, guztira 11.000,00 euroko inbertsio materialak jasotzen dira. 6.000,00 euro altzariei eta tresnei dagozkie, eta 5.000,00 euro informazioa prozesatzeko ekipoei.

Era berean, inbertsio ez-materialetan SIS EUDEL datu-basea eguneratzeko 20.000,00 euro aurreikusi dira.

9. kapitulua. Pasibo finantzarioak.

9. kapituluan aurreikusitako zenbatekoa 251.600,23 eurokoa da, eta ehuneko 8,72ko igoera izan du kapitulu honetan, aurreko ekitaldiko aurrekontuarekin alderatuta, eta bat dator gastuaren 3. kapituluan aipatutako hipoteka-maileguaren amortizazioarekin.

GASTUEN AURREKONTUAREN ANALISIA, PROGRAMEN ARABERA

Hona hemen 2024ko gastuen aurrekontuaren banakatzea, programen arabera:

* Zenbatekoak, eurotan adierazita

	HASTAPENeko AURREKONTU KREDITUAK 2023	HASTAPENeko AURREKONTU KREDITUAK 2024	Aldaketa %
ADMINISTRAZIO OROKORRA	3.007.627,83	3.315.569,54	% 10,24
PRESTAKUNTZA	109.545,88	106.546,00	-% 2,74
GIZARTE-ZERBITZUAK	50.000,00	72.000,00	% 44,00
BERDINTASUNA	122.800,00	127.800,00	% 4,07
EUSKARA	48.500,00	48.500,00	% 0,00
UDALERRI TXIKIAK	18.500,00	0,00	-% 100,00
PROIEKTU EUROPARRAK (GOBERNANTZA)	50.820,00	50.820,00	% 0,00
GUZTIRA	3.407.793,71	3.721.235,54	% 9,20

Programa horietatik, honako hau nabarmentzen da:

Administrazio Orokorraren programan Elkarteari, oro har, eragiten dioten jardueri dagozkien gastuak sartzen dira. Gastu-bolumen handiena duen programa da, 3.315.569,54 eurokoa.

808.255,11 euro aurreikusi dira *azterlan eta lan tekniko*en partidan.

Halaber, Udalerrien eta Probintzien Espainiako Federazioarekin sinatutako lankidetzak-hitzarmenari dagokion ekarpena aurreikusten da.

Prestakuntza-programan 106.546,00 euroko aurrekontu-zuzkidura aurreikusten da. Aurrekontu-zuzkiduratik, 25.000,00 euro Toki Zuzenbidearen Euskal Mintegira bideratuko dira, 58.000,00 euro, 2023an alkateei, zinegotziei eta udaletako zuzendariei zuzendutako harrera-programetan hasitako prestakuntzari jarraipena emateko, 8.546,00 euro lidergo-prestakuntzarako eta 15.000,00 euro administrazio elektronikoa sinplifikatzeko eta elkarrengarritasunerako proiektua.

Gizarte-zerbitzuen programan, Eusko Jaurlaritzak finantzatutako etorkinentzako itzulpen-zerbitzuari jarraipena emateko, 80.000,00 euro aurreikusten dira. Aurreikusitako gastua honela banatzen da: zerbitzua prestatzen duen enpresaren kontratazioa (72.000,00 euro) eta aurreikusitako diru-sarreraren ehuneko 10eko personal gastuak (8.000,00 euro).

Berdintasun programan, Berdinsarea sarea eta Berdinbidean programa lantzen jarraituko dugu. 102.800,00 euroko guztizko zuzkiduratik, EUDELe egindako ekarpena 18.000 eurokoa da gehi arloaren teknikariaren personal gastuak, eta 84.800 eurokoa Emakunderena. Halaber, 25.000,00 euro aurreikusten dira 20/30 agendaren esparruko berdintasun-jardueretarako. Gastu hori Eusko Jaurlaritzak emango duen zenbateko bereko diru-sarrera batekin finantzatzea aurreikusten da.

Euskara programan, 2024rako 48.500,00 euroko gastua aurreikusten da; horietatik 28.000,00 euro Eusko Jaurlaritzarekin udaletan Euskara sustatzeko ekintza-planak diseinatu eta garatzeko egindako hitzarmena betetzeko erabiliko dira, 15.000,00 euro Euskaltzaindiarekin toponimiari buruzko hitzarmenean hartutako betebeharrei aurre egiteko eta 5.500,00 euro programaren gastu osagarrietarako.

Proiektu europarrei buruzko programa 50.820,00 euroz hornituko da. ELoGEren proiekturako, gobernantza onaren arloko bikaintasunera bideratua, erabiliko da zenbateko osoa; eta parte hartzen duten udaletatik aurreikusten diren ekarpenekin finantzatuko da.

ONDORIOAK

Aurrekontua berdinduta dago 2024rako sarreretan eta gastuetan, eta 3.721.235,54 eurokoa da; horrek esan nahi du, aurreko ekitaldiko hasierako aurreikuspenekin alderatuta, ehuneko 9,20ko igoera egongo dela.

Diru-sarrerei dagokionez:

- Udal Finantzaketarako Foru Funtsen ehuneko 0,15etik datozen diru-sarrerak aurreikusi dira, 2024ko ekitaldirako aurreikuspenak -urrian egindako lurralde bakoitzeko Finantzen Lurralde Kontseiluetan zehaztutakoak- kontuan hartuta.
- Udal bazkideen kuotak mantenduko dira, eta Colon de Larreategi kaleko 35. zenbakian dagoen higiezina alokatzeagatik diru-sarrera jasotzen jarraitzea aurreikusten da.
- Toki Zuzenbideko Euskal Mintegiari dagokionez, programa gauzatzeko matrikulak kobratu ohi dira, eta, beraz, diru-sarreren eta gastuen zenbateko bera aurreikusten da, hau da, 25.000,00 euro.
- Halaber, Eusko Jaurlaritzaren eta Emakunderen dirulaguntzak jasotzen jarraitzea aurreikusten da, honako programa hauetarako: Berdintasuna (84.800,00 euro), Euskara (28.000,00 euro) eta Gizarte Zerbitzuak (80.000,00 euro).
- Berdintasuneko gaiak lantzeko 20/30 agendarako (25.000,00 euro) eta ETELen helburuak bultzatzeko Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza (55.000,00 euro) ere aurreikusi dira.
- Gobernantza onaren arloan bikaintasuna lortzera bideratutako ELoGE proiektuarekin jarraitzeko diru-sarrerak aurreikusten dira eta parte hartzen duten udalek, guztira, 50.820,00 euroko ekarpena egitea espero da.
- 10.800,00 euroko diru-sarrerak aurreikusten dira banku-kontuetako interesengatik.

Gastuei dagokionez:

Gastu-aurrekontuaren ehuneko 51,69 pertsonal-gastuen (ehuneko 44,27) eta hipoteka-maileguaren interesen eta amortizazioaren (ehuneko 7,42) artean banatzen da.

Ondasun eta zerbitzuen erosketari buruzko kapituluan (% 46,87), gastu arruntaz gain, honako hauek nabarmen ditzakegu:

- *Azterlan eta lan teknikoen* partida, 2024rako 808.255,11 eurokoa aurreikusten dena, besteak beste, honako hauetarako erabiliko da: udalaren diagnostiko sozialaren pilotaje-proiekturako beharrezkoak diren lanetarako, urteko kontuen auditoretzarako, 20/30 agendaren esparruan beharrezkoak diren lanetarako, udaltzaingoan berdintasuna ezartzeko gida zabaltzeko, udaltzaingoan berdintasun-planak ezartzeko gaikuntzarako, edo elkartearen lan-eremuren batean sortzen den edozein beharretarako.
- *Publizitate eta komunikaziorako* aurreikusitako partidak, guztira, 126.286,00 eurokoak dira eta nabarmentzekoak dira prentsa-zerbitzuak (63.486,00 euro), besteak beste, jardunaldi eta ekitaldietarako bideoak grabatzea, prentsa-kabineteari laguntza eskaintzea edo EUDEL-en erakunde-nortasunaren eskuliburua egitea (27.000,00 euro), web-orria mantentzea (22.000,00 euro) eta Udala aldizkaria (12.800,00 euro).
- Proiektu eta programetarako aurreikusitako zenbatekoa, 390.666,00 eurokoa, honela banakatzen da:
 - Prestakuntzarako, 106.546,00 euro, honela banatuta: 25.000,00 euro Toki Zuzenbideko Euskal Mintegirako; 58.000,00 euro politikarien eta zuzendarien prestakuntzarako, 2023ko ekitaldian alkate eta zinegotzi berriei zuzendutako harrera-programei jarraipena emateko; 8.546,00 euro lidergo-prestakuntzarako; eta 15.000,00 euro administrazio elektronikoen sinplifikazio- eta elkarreragingarritasun-proiekturako.
 - 80.000,00 euro etorkinentzako itzulpen-zerbitzurako, eta horietatik 8.000,00 euro pertsonal-gastuak izango direla aurreikusten da.
 - Berdintasunerako 127.800,00 euro, Berdinsarea sarerako, Berdinbidean programarako eta 20/30 agenda bultzatzeko.
 - Euskarako, 33.500,00 euro.
 - Europako proiektuetarako (ELoGE), 50.820,00 euro.

Inbertsio errealei dagokienez, ehuneko 3,13ko murrizketa aurreikusten da, aurreko ekitaldiarekin alderatuta. *Altzarietan eta tresnetan* inbertitzea aurreikusten da (6.000,00 euro), eta 5.000,00 euro aurreikusten dira *informazioa prozesatzeko ekipoetan* (ekipo informatikoak berritzea). Era berean, SIS EUDEL datu-basea 20.000,00 eurotan eguneratzea aurreikusi da.



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

ERANSKINA

EUDEL-EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA

2024ko AURREKONTUAREN PROIEKTUA DIRU SARREREN EGOERA

				Eurotan	
SAILKAPEN EKONOMIKOA	DESKRIBAPENA	HASIERAKO AURREIKUS. 2023	HASIERAKO AURREIKUS. 2024	Aldaketa % - 2024 / 2023	
		3.407.793,71	3.721.235,54	% 9,20	
3		TASAK ETA BESTE DIRU-SARRERA BATZUK	22.500,00	27.500,00	% 22,22
	399	Askotariko bestelako diru-sarrerak	22.500,00	27.500,00	% 22,22
	39901	Diru-sarrerak Jardunaldiengatik	20.000,00	25.000,00	% 25,00
	39902	Beste diru-sarrera batzuk	2.500,00	2.500,00	% 0,00
4		TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	3.321.396,08	3.614.625,54	% 8,83
	41	Euskal Autonomia Erkidegokoak	3.321.396,08	3.614.625,54	% 8,83
	410	Administrazio orokorrarenak	167.800,00	272.800,00	% 62,57
	41001	Berdinsarea-Berdinbidean. Emakunde	84.800,00	84.800,00	% 0,00
	41002	Euskara Hitzarmena. Eusko Jaurlaritza	28.000,00	28.000,00	% 0,00
	41003	20/30 Agenda Berdintasuna. Eusko Jaurlaritza.	-	25.000,00	
	41004	Immigr. Itzulpen hitzarmena. Eusko Jaurlaritza.	55.000,00	80.000,00	% 45,45
	41005	Helburuak sustatzeko diru-laguntza. ETEL (Eusko Jaurlaritza)	-	55.000,00	
	416	Foru Aldundiak eta beste Foru Erakunde batzuk	2.810.984,07	2.997.710,99	% 6,64
	41601	Arabakoa. Zerga Itunduen Partaidetza	395.457,91	396.136,99	% 0,17
	41602	Bizkaikoa. Zerga Itunduen Partaidetza	1.501.441,77	1.623.991,00	% 8,16
	41603	Gipuzkoakoa. Zerga Itunduen Partaidetza	914.084,39	977.583,00	% 6,95
	417	Tokiko erakundeak	342.612,01	344.114,55	% 0,44
	41701	Eudeleko bazkideen kuotak	291.792,01	293.294,55	% 0,51
	41702	Gobernantza proiektuaren ekarpenak	50.820,00	50.820,00	% 0,00
5		ONDARE-SARRERAK	63.897,63	79.110,00	% 23,81
	54	Ondasun higiezinaren errentak	63.897,63	68.310,00	% 6,91
	540	Hiri-finken errentamendua	63.897,63	68.310,00	% 6,91
	540	Hiri-finken errentamendua	63.897,63	68.310,00	% 6,91
	56	Gordailuen interesak	-	10.800,00	
	560	Banku-kontuen interesak	-	10.800,00	
	560	Banku-kontuen interesak	-	10.800,00	

EUDEL-EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA

2024ko AURREKONTUAREN PROIEKTUA

GASTUEN EGOERA

Eurotan

SAILKAPEN EKONOMIKOA	DESKRIBAPENA	HASTAPENeko AURREKONTU KREDITUAK 2023	HASTAPENeko AURREKONTU KREDITUAK 2024	Aldaketa % - 2024 / 2023
		3.407.793,71	3.721.235,54	% 9,20

1		PERTSONAL-GASTUAK	1.609.106,04	1.647.541,33	% 2,39
	11	Behin-behineko pertsonala	67.364,38	69.459,99	% 3,11
		110 Behin-behineko langileen ordainsariak	67.364,38	69.459,99	% 3,11
	13	Pertsonal laborala	1.189.978,03	1.209.140,34	% 1,61
		130 Lan-kontratuko langile finkoen ordainsariak	1.189.978,03	1.209.140,34	% 1,61
	16	Enplegu-emailearen kargurako gizarte kuota, prestazio eta gastuak	351.763,62	368.941,00	% 4,88
		160 Gizarte-kuotak	332.763,62	349.941,00	% 5,16
		16001 Gizarte Segurantzaz	298.338,39	316.813,16	% 6,19
		16004 Elkarlagarritza kuotak	34.425,24	33.127,84	-% 3,77
	163	Lan-kontratuko langileen gizarte-gastuak	19.000,00	19.000,00	% 0,00
		16301 Langileen prestakuntza	8.000,00	8.000,00	% 0,00
		16305 Bizitza- eta istripu-seguratuak	11.000,00	11.000,00	% 0,00

2		ONDASUN ARRUNTEN ETA ZERBITZUEN EROSKETA	1.468.283,17	1.744.039,50	% 18,78
	20	Errentamenduak	8.538,42	14.614,57	% 71,16
		201 Eraikinak eta beste eraikuntza batzuk	2.538,42	2.614,57	% 3,00
		20101 Garaje plazen errentamenduak	2.538,42	2.614,57	% 3,00
	203	Garraio-materiala	6.000,00	12.000,00	% 100,00
		20301 Garraio-tresnen errentamendua	6.000,00	12.000,00	% 100,00
	21	Mantentze-eta kontserbatze-konponketak	3.000,00	5.000,00	% 66,67
		214 Altzarien konponketak	3.000,00	5.000,00	% 66,67

SAILKAPEN EKONOMIKOA	DESKRIBAPENA	HASTAPENENKO AURREKONTU KREDITUAK 2023	HASTAPENENKO AURREKONTU KREDITUAK 2024	Aldaketa % - 2024 / 2023
-------------------------	--------------	---	---	-----------------------------

22		Materiala, hornidurak eta bestelakoak	1.426.744,75	1.694.424,93	% 18,76
	220	Bulegoko materiala	17.011,80	17.100,00	% 0,52
	22001	Bulegoko materiala	11.445,00	11.500,00	% 0,48
	22002	Prentsa, aldizkaria, liburuak eta beste argitalpen batzuk	5.000,00	5.000,00	% 0,00
	22003	Material informatiko inbentariaezina	566,80	600,00	% 5,86
	221	Hornidurak	18.861,36	20.210,40	% 7,15
	22101	Energia elektrikoaren hornidurak	17.963,20	19.310,40	% 7,50
	22102	Ur-hornidurak	898,16	900,00	% 0,20
	222	Komunikazioak	68.067,50	38.067,50	-% 44,07
	22201	Telefono bidezko komunikazioak	28.067,50	28.067,50	% 0,00
	22202	Posta bidezko komunikazioak	40.000,00	10.000,00	-% 75,00
	224	Eraikinetako aseguruari sariak	8.175,00	12.285,00	% 50,28
	225	Zergak	3.000,00	3.000,00	% 0,00
	226	Askotariko gastuak	110.582,00	240.726,00	% 117,69
	22602	Protokolo eta ordezkapen gastuak	1.000,00	1.000,00	% 0,00
	22603	Publizitatea eta komunikazioa	62.142,00	126.286,00	% 103,22
	2260301	Publizitatea eta propaganda	1.000,00	1.000,00	% 0,00
	2260302	Prentsa eta komunikazio zerbitzuak	32.342,00	63.486,00	% 96,30
	2260303	UDALA aldizkaria	12.800,00	12.800,00	% 0,00
	2260304	Argitalpenak	10.000,00	27.000,00	% 170,00
	2260305	Webgunearen mantentzea	6.000,00	22.000,00	% 266,67
	22604	Defentsa juridikoa	6.000,00	15.000,00	% 150,00
	22605	Bilerak eta hitzaldiak	23.000,00	25.000,00	% 8,70
	22607	Askotariko gastuak	1.000,00	1.000,00	% 0,00
	22608	ETEL helburuak sustatzea	-	55.000,00	
	22609	Funts bibliografikoak	17.440,00	17.440,00	% 0,00
	227	Kanpoko beste enpresa batzuek egindako lanak	815.881,21	972.370,03	% 19,18
	22701	Garbiketa-enpresetako lanak	43.600,00	44.591,12	% 2,27
	22707	Azterlan eta lan teknikoak	632.749,21	808.255,11	% 27,74
	22710	Posta-zerbitzuak	2.180,00	2.180,00	% 0,00
	22711	Programa informatikoen mantentzea	42.900,00	19.488,20	-% 54,57
	22712	Jardunaldiak eta mintegiak	5.000,00	10.000,00	% 100,00
	22713	Jabeen komunitateen kuotak	35.752,00	27.855,60	-% 22,09
	22714	Euskara Barne Plana	3.000,00	3.000,00	% 0,00
	22715	Kanpoko beste enpresa batzuek egindako lanak	10.000,00	12.000,00	% 20,00
	22716	Itzulpen zerbitzuak	32.700,00	37.000,00	% 13,15
	22718	Berdintasun Plana	8.000,00	8.000,00	% 0,00



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

SAILKAPEN EKONOMIKOA	DESKRIBAPENA	HASTAPENEN AURREKONTU KREDITUAK 2023	HASTAPENEN AURREKONTU KREDITUAK 2024	Aldaketa % - 2024 / 2023
-------------------------	--------------	--	--	-----------------------------

	228	Proiektuak eta programak	385.165,88	390.666,00	% 1,43
	22801	Udalerrri txikietako Aseguru Zerbitzuak (INFOUDALA)	18.500,00	-	
	22802	Tokiko Zuzenbidearen Euskal Mintegia	25.000,00	25.000,00	% 0,00
	22803	Tokiko zuzendaritza publikoaren prestakuntza	58.000,00	58.000,00	% 0,00
	22804	Prestakuntza - laguntza-programak	18.000,00	15.000,00	-% 16,67
	22805	Lidergoaren prestakuntza	8.545,88	8.546,00	% 0,00
	22806	Proiektu Europarrak	50.820,00	50.820,00	% 0,00
	22807	Berdintasuna Berdinsarea / Baskeskola	102.800,00	102.800,00	% 0,00
	22808	Berdintasuna agenda 20/30	20.000,00	25.000,00	% 25,00
	22809	EUDEL euskara	33.500,00	33.500,00	% 0,00
	22811	Immigrazio Itzulpen Zerbitzuak	50.000,00	72.000,00	% 44,00
23		Zerbitzuagatiko kalte-ordaina	30.000,00	30.000,00	% 0,00
	230	Mugimendu eta garraio pertsonalerako dietak	15.000,00	15.000,00	% 0,00
	231	Goi-karguen mugimendu eta garraiorako dietak	15.000,00	15.000,00	% 0,00

3		GASTU FINANTZARIOAK	44.340,00	24.417,83	-% 44,93
	33	L/Pri egindako maileguetakoak	44.340,00	24.417,83	-% 44,93
	331	L/Pri egindako maileguen interesak	44.340,00	24.417,83	-% 44,93

4		TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	22.636,50	22.636,65	% 0,00
	48	Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	22.636,50	22.636,65	% 0,00
	481	Irabazi-asmorik gabeko erakundeei	22.636,50	22.636,65	% 0,00
	48101	Hitzarmena FEMPeKin	7.067,00	7.067,00	% 0,00
	48102	Hitzarmena EUSKALTZAINDIArekin	15.000,00	15.000,00	% 0,00
	48103	Hitzarmena EUSKALITekin	267,00	267,15	% 0,06
	48104	Innobasque Kuota	302,50	302,50	% 0,00

SAILKAPEN EKONOMIKOA	DESKRIBAPENA	HASTAPENEN AURREKONTU KREDITUAK 2023	HASTAPENEN AURREKONTU KREDITUAK 2024	Aldaketa % - 2024 / 2023
-------------------------	--------------	---	--	--------------------------------

6			INBERTSIO ERREALAK	32.000,00	31.000,00	-% 3,13
	62		Zerbitzuen funtzionamendu operatiboari lotutako inbertsioa	12.000,00	11.000,00	-% 8,33
		625	Altzariak eta tresnak	6.000,00	6.000,00	% 0,00
		62501	Altzariak	1.000,00	1.000,00	% 0,00
		62502	Bulego-ekipoak	5.000,00	5.000,00	% 0,00
		626	Informazioa prozesatzeko ekipoak	6.000,00	5.000,00	-% 16,67
	64		Inbertsio ez-materialetak gastuak	20.000,00	20.000,00	% 0,00
		644	Aplikazio informatikoetako gastuak	20.000,00	20.000,00	% 0,00
		64401	Programetako inbertsioak	20.000,00	20.000,00	% 0,00

9			PASIBO FINANTZARIOAK	231.428,00	251.600,23	% 8,72
	93		E/L Maileguen Amortizazioa	231.428,00	251.600,23	% 8,72
		931	Sektore publikotik kanpokoak	231.428,00	251.600,23	% 8,72
		93102	E/L. Ercillako maileguaren amortizazioa	231.428,00	251.600,23	% 8,72

2023ko azaroaren 28an egindako
proiektua, 2024ko urtarrilaren 9ko
bileran Batzorde Betearazleak azter
dezan.